

æek  
22.korrika

1. ALBISTEA

2021/11/17



A2  
MAILA

**Badator 22. KORRIKA!**

Hiru, bi, bat... eta, ekin! Elkarrekin!

**HITZAREN**

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Irudia (AEK): 22. KORRIKA aurkezpena Donostiako San Telmo Museoa



## Hamaika galdera Asier Amondo Gorostizaga KORRIKA arduradunari <sup>1</sup>

**Azkenean esan dezakegu: "Badator KORRIKA!". 2022ko martxoaren amaieran KORRIKA, euskararen aldeko<sup>2</sup> lasterketa erraldoia<sup>3</sup>, Euskal Herrian ibiliko da berriro, eta gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta, euskaraz jantziko ditu. Datorren urtekoa 22. KORRIKA izango da, eta, lasterketaren aurkezpena egiteko, AEK-k Donostiako San Telmo Museoa bildu ditu kazetariak. Bertan, Asier Amondo KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.**

**Laster, KORRIKA ibiliko da Euskal Herriko kaleetan zehar... KORRIKA "normala" izango al da?**

Bai; gure ustez, betiko KORRIKA izango da. Baikor<sup>4</sup> gaude.

**Baina, zer da KORRIKA? Nola azalduko zenioke ezagutzen ez duen bati?**

KORRIKA euskararen aldeko lasterketa erraldoia da, Euskal Herrian egiten den ekimenik<sup>5</sup> jendetsuena eta zirrargarriena<sup>6</sup>. 11 egunez, etenik gabe<sup>7</sup>, gau eta egun, 2.500 kilometro inguru egingo ditugu Euskal Herriko bazter guztietatik, eta mezu<sup>8</sup> sekretua gordetzen duen lekukoa<sup>9</sup> eskuz esku<sup>10</sup> ibiliko da.

**Zein da KORRIKAREN helburua<sup>11</sup>?**

KORRIKAREkin euskararen erabilera<sup>12</sup> eta ezagutza<sup>13</sup> bultzatzen<sup>14</sup> ditugu eta euskaltegiak ekonomikoki lagundu.

**Eta, zein da KORRIKAREN leloa<sup>15</sup>?**

"HITZEKIN" da edizio honen leloa, eta bi hitzek osatzen dute: "hitz" eta "ekintza<sup>16</sup>". Hizkuntza bat hitzez osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Guk uste dugu euskara hitzetik ekintzara eramateko unea<sup>17</sup> dela.

**Oraingoa 22. edizioa da. Askotxo da hori...**

Bai, benetan! Esaten da hiru euskal herritarretik batek parte hartu duela. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ilusioa

berreskuratzea<sup>18</sup>: kalean, sareetan, ikastetxeetan, diasporan eta abarretan.

**Horri lotuta, KORRIKA "mundiala" dela ere<sup>19</sup> esan daiteke, ezta?**

Bai, hala da! Mundu osoko 60 bat tokitako hiri nagusietan ere ibiliko da 22. KORRIKA: La Platan, San Frantziskon, New Yorken, Parisen, Berlinen, Bartzelonan, Bruselan, Shanghai, Tokion...

**Eta, KORRIKAREN "ahizpak" ere hor ditugu...**

Bai, horixe da. Baditugu munduan zehar hizkuntza gutxituen alde antolatzen diren ekimenak; hau da<sup>20</sup>, KORRIKAREN ahizpak: Hego Amerikan, maputxeen hizkuntzaren aldeko lasterketa (Lefkantun), Britainian (Ar Redadeg), Irlandan (Rith), Galesen (Ras yr Iaith), Katalunian (Correllengua) eta Galizian (Correlingua).

**Lehenengo edizio hura Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Nondik nora joango da 22. KORRIKA?**

Amurriotik Donostia joango da, martxoaren 31tik, apirilaren 10era. Baina, eguneroko ibilbide zehatza<sup>21</sup> ezagutzeko, apur bat itxaron behako duzue.

**Ados, zain egongo gara! Eta, zer esan dezakezue KORRIKA alaituko duen kantaz?**

Oraindik<sup>22</sup> sekretua da; baina, laster entzun ahal izango duzue, eta zuen gustukoa izatea espero dugu!



Asier Amondo Gorostizaga, KORRIKA arduraduna (Laudio, 1969)

## 21. KORRIKak Txillardegi omendu<sup>23</sup> zuen. Jakin daiteke nor omenduko duen 22. edizioak, ala hori ere sekretua da?

Bada, bai, hori esan dezakegu! Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditugu oraingoan. Zergatik beraiek? Bada, 34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan, eta euskaraz.

### Nola hartzen da parte KORRIKAN?

Modu asko daude: korrika eginez, KORRIKA kulturalean parte hartuz, KORRIKA batzordeetan<sup>24</sup> lan eginez eta KORRIKA LAGUNTZAILEA eginez. Horixe da KORRIKA ekonomikoki laguntzeko modu onena. Izen-emate kanpaina hemendik gutxira hasiko da. KORRIKA materiala ere laster egongo da salgai: arropa, eta abar.

### Tira, bada, ekin KORRIKARI...

Horixe! Errepidean ikusiko dugu elkar<sup>25</sup>!

### Hiztegia

- <sup>1</sup> arduradun: *responsable*  
<sup>2</sup> -ren alde: *a/en favor de...; en faveur de...*  
<sup>3</sup> Lasterketa erraldoi: *carrera gigante; course géante*  
<sup>4</sup> Baikor: *positivo/a; positif, optimiste*  
<sup>5</sup> Ekimen: *iniciativa; initiative*  
<sup>6</sup> Zirrargarri: *emocionante; impressionnant,-e*  
<sup>7</sup> Etenik gabe: *sin parar; sans s'arrêter*  
<sup>8</sup> Mezu: *mensaje; message*  
<sup>9</sup> Lekukoa: *testigo; témoin*  
<sup>10</sup> Eskuz esku: *de mano en mano; de main en main*  
<sup>11</sup> Helburua: *objetivo; objectif, but*  
<sup>12</sup> Erabilera: *uso; usage, utilisation*  
<sup>13</sup> Ezagutza: *conocimiento; connaissance*  
<sup>14</sup> Bultzatu: *impulsar; promouvoir, soutenir*  
<sup>15</sup> Leloa: *eslogan; slogan*  
<sup>16</sup> Ekintza: *acción; action*  
<sup>17</sup> Unea: *momento; moment*  
<sup>18</sup> Berreskuratu: *recuperar; récupérer*  
<sup>19</sup> Ere: *también; aussi*  
<sup>20</sup> Hau da: *es decir; c'est-à-dire*  
<sup>21</sup> Zehatza: *concreto; exact,-e, précis*  
<sup>22</sup> Oraindik: *todavía; encore*  
<sup>23</sup> Omendu: *homenajear; rendre hommage*  
<sup>24</sup> Batzorde: *comité; comité*  
<sup>25</sup> Elkar ikusiko dugu: *nos veremos; nous nous verrons*

- **Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?**  
 Subraya las formas correctas y después responde: ¿son verdaderas o falsas?  
 Soulignez-vous les formes correctes, et puis répondez : sont-elles vrais ou faux?



## E G

- 1. Aurtengo KORRIKA normala **izan / izaten / izatea** espero dute.
- 2. Txanda-aldaketan korrikalariak bostekoa ematen **da / dute / diote** elkarri.
- 3. KORRIKA euskara **bultzatzen / bultzatzeko / bultzatzera** egiten da.
- 4. **KORRIKA / KORRIKAK / KORRIKek** 60 "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo.
- 5. KORRIKA Arabatik Gipuzkoara **joango / joan / joaten** da aurten.
- 6. KORRIKA martxoaren 31n **hasi / hasten** eta apirilaren 10ean **amaitzen / amaituko** da.
- 7. Oraindik ezin dute ezer **esan / esatea / esaten** KORRIKA kantari buruz.
- 8. KORRIKak Pirritx, Porrotx eta Marimotots omenduko **dituzte / ditu / ditugu** oso alaiak direlako.
- 9. KORRIKAN parte **hartzeko / hartzea / hartzera** modu asko dago.
- 10. KORRIKA diruz laguntzeko modu onena KORRIKA LAGUNTZAILEA **egitea / egiten / egin** da.

**PROZEDURA:**

- ▶ KORRIKAz zer dakiten galdetuko dugu.
- ▶ Bideoa<sup>1</sup> ikusi, eta irudien laguntzaz, KORRIKA zer den ez dakitenei oinarrizko azalpenak eman eta lehen albistea aurkeztuko dugu.
- ▶ Bakarka, elkarrizketa irakurri, eta ariketa egingo dute (2.-3. or.).
- ▶ Ondoko ikasleekin egindakoa alderatuko dute, eta elkarri zalantzak argitzen saiatuko dira.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**Erantzun zuzenak (azpimarratuta):**

1. Aurtengo KORRIKA normala **izan / izaten / izatea** espero dute. EGIA
2. Txanda-aldaketan korrikalariak bostekoa ematen **da / dute / diote** elkarri. GEZURRA
3. KORRIKA euskara **bultzatzen / bultzatzeko / bultzatzera** egiten da. EGIA
4. **KORRIKA / KORRIKak / KORRIKek** 60 "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo. GEZURRA
5. KORRIKA Arabatik Gipuzkoara **joango / joan / joaten** da aurten. EGIA
6. KORRIKA martxoaren 31n **hasi / hasten** eta apirilaren 10ean **amaitzen / amaituko** da. EGIA
7. Oraindik ezin dute ezer **esan / esatea / esaten** KORRIKA kantari buruz. EGIA
8. KORRIKak Pirritx, Porrotx eta Marimotots omenduko **dituzte / ditu / ditugu** oso alaiak direlako. GEZURRA
9. KORRIKAn parte **hartzeko / hartzea / hartzera** modu asko dago. EGIA
10. KORRIKA diruz laguntzeko modu onena KORRIKA LAGUNTZAILEA **egitea / egiten / egin** da. EGIA

- ▶ Amaitzeko, solasaldia egingo dugu. Eskolan adi egon ote diren ikusteko eta solasaldia egiten laguntzeko, pantaila handian galderak eta irudiak ikus ditzakegu<sup>2</sup>. Nahi izanez gero, "txapelketa" ukitua ere eman diezaiokegu: ikasleak binaka jarri, puxtarriak banatu... Galderetan, ikusitakoaren erreposoa topatuko duzue. Gura izanez gero, 1. albistearen titularrak<sup>3</sup> ere ikus ditzakezue.

**"LEXIKO BERRIA IKASTEN" JOKOA****Jokoaren helburua**

Testuan agertuko den lexiko berria ikasteko, ETB1eko *Mihiluze* lehiaketa ezaguneko *Tribuaren berbak* jokoaren prozedurari jarraituko diogu. Beraz, jokoaren helburua izango da hitz guztien esanahia jarraian asmatzea.

**Jokoaren arauak**

- Ikasleak talde txikitik banatuko ditugu.
- "Lexiko berria ikasten" PDFa ordenagailuaren edo telebistaren pantailan jarriko dugu. Jarri dokumentua "aurkezpen" moduan, pantaila osoa bete dezan.
- Klik eginda, hitzak eta esanahiak agertzen diren lehenengo orrira igaroko gara, eta hasiera emango diogu jokoari. Orri horretan, pantailaren ezkerrean, hamaika hitz agertuko zaizkigu euskaraz; eskuinean, aldiz, hitz horiek gaztelaniaz eta frantsesez.
- Lehendabiziko hitza azpimarratuta agertuko zaigu. Lehenengo jokalaria esan beharko du hitz horrek zer esan nahi duen, eskuineko hitzen artean aukera eginez.
- Aukera bakarra izango dute jokalariek hitza asmatzeko. Asmatuz gero, klik eginda hurrengo orrialdera joango gara. Hortxe erantzuna ikusiko dugu, eta hurrengo hitza azpimarratuta agertuko zaigu.
- Hitzak asmatu bitartean, jokalariek beren txandari eutsiko diote; hitzen batekin okertuz gero, aldiz, hasierako pantailara itzuliko gara, eta hurrengo jokalarien txanda izango da.
- Jokalari batzuek, jarraian, hitz guztien esanahiak asmatzen dituztenean, irabaziko dute jokoak.

<sup>1</sup> Bideoa "21. KORRIKA: Mila esker, Euskal Herria!" <https://www.youtube.com/watch?v=WcOFEgbaW6A>

<sup>2</sup> Ikusi "Solasaldirako BADATOR KORRIKA.pdf", (".odp" dokumentua ere eskura duzue, editagarria).

<sup>3</sup> Ikusi "1 albistea TITULARRAK.odp" dokumentua, pantaila handian ikusteko pentsatua. Aurkezpen-moduan ikusiz gero, titularrak "efektuekin" ikusiko ditugu. Bestela, "1 albistea TITULARRAK.pdf" ere eskura duzue, nahiago izanez gero.